

Kontsumitzaileak babesteko neurriak, argindarraren, petroliotik eratorritako produktuen, gas naturalaren eta uraren hornidura bermatzeari dagokionez (11/2020 Errege Lege Dekretuaren 28., 29., 42., 43. eta 44. artikulua); neurriak, printzipioz, hilabetez izango dira indarrean, alarma-egoera bukatu ondoren. Aintzat hartuko da ere TED/320/2020 Agindua, apirilaren 3koa, COVID-19 krisiaren ondorioz jarduera utzi edo fakturazioan murrizketa izan duten langile autonomoek bonu soziala jasotzeko eskubideari buruz hainbat aspektu garatzen dituen.

ARGINDARRAREN, PETROLIOTIK ERATORRITAKO PRODUKTUEN, GAS NATURALAREN ETA URAREN HORNIDURA BERMATZEA (29. art.)

Alarma-egoerak iraun bitartean, kontsumitzaileei ezingo zaizkie ohiko etxebizitzako **argindarraren, petroliotik eratorritako produktuen, gas naturalaren eta uraren hornidura ezin eten**, hornidurako edo sarbiderako kontratuetan aukera hori jasotzen bada ere. Horretan, salbuespen bakarra da segurtasun-arrazoiengatik zerbitzua eten behar izatea.

Kontsumitzaileak bere ohiko etxebizitzaren hornidura dela egiaztatu behar dio hornitzaileari, dokumentuen bidez.

Halaber, ordainketa egiteko eskaeraren frogagiria badago, alarma-egoerak iraun bitartean **eten egingo da errekerimendu hori egiten denetik zerbitzua ez ordaintzeagatik hornidura eteten den arteko epea**.

Bonu sozialaren indarraldia automatikoki luzatuko da 2020ko irailaren 15era arte.

Bestalde, prezio arautuak eguneratu gabe geratuko dira, igo daitezkeen ekiditeko.

COVID-19 KRISIAREN ONDORIOZ JARDUERA AMAITU EDO FAKTURAZIOAN MURRIZKETA IZAN DUTEN LANGILE AUTONOMOENTZAKO BONU SOZIALA (28. art.)

Bonu sozial elektriko bat sortu da autonomo edo norberaren konturako langileentzat, baldin eta COVID-19 krisiagatik:

- **Jarduerari** amaiera eman behar izan badiote.
- **Bonu soziala eskatu aurreko hilean fakturazioa % 75 behintzat murriztu bazaie** azken seihilekoko fakturazioaren batez bestekoarekin alderatuta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretu Legean ezarritako baldintzetan.

Bonu Soziala jasotzeko ezinbestekoa da PVPC (Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioari) tarifari atxikita egotea, eta harekin ordaindu nahi den hornidura ohiko etxebizitzarena izatea. Bonu Sozialarekin ordaindu nahi den hornidura enpresa edo pertsona juridiko baten izenean badago, titular-aldaketa egin beharko da pertsona fisikoaren izenean jartzeko.

Horrez gain, familia-unitatearen urteko errenta bateratuak jaso behar ditu gehienez:



- 18.799€ (diru-sarrerak 2,5 IPREMen parekoak; 14 ordainsari), familia-unitatean adingabekorik ez badago.
- 22.559€ (diru-sarrerak 3 IPREMen parekoak; 14 ordainsari) familia-unitatean adingabeko bat badago.
- 26.318€ (diru-sarrerak 3,5 IPREMen parekoak; 14 ordainsari) familia-unitatean bi adingabeko badaude.

Mutur horiek Trantsizio Ekologikoaren Ministerioaren BOSCO tresna informatikoaren bidez egiaztatzen dira, oinarri hartuta azkeneko urteko errenta (kasu honetan, 2018koa).

Kontsumitzaileak bonu soziala jasotzeko baldintzak betetzen ez baditu, Erreferentziazko Komertzializatzaileari jakinarazi beharko dio, bonu sozialari amaiera emateko. Dena dela, 6 hilabeteko iraupena izango du gehienez ere.

Dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Bonu soziala eskatzeko inprimakia eta titularrak, edo, hala badagokio, 14 urtez gaineko familia-unitateko kide guztiek sinatutako baimenak. Eskararako inprimakia jasota dago apirilaren 3ko TEC/320/2020 Aginduan, COVID-19 krisiak kaltetutako autonomoentzako bonu sozial berriaren alderdi jakin batzuk garatzen eta 11/2020 Errege Lege Dekretuan jasotzen zen eskaera-inprimakia aldatzen dituenean.
- Familia-unitateko kideen (14 urtez azpikoak barne, baldin badaukate) NAN edo AIZ fotokopia.
- Titularraren eta familia-unitateko kide guztien indarreko errola-ziurtagiria.
- Familia-liburuaren fotokopia.
- Norberaren konturako langilearen egoera ekonomikoa arrazoitzen duten dokumentuak:
 - Jarduerari amaiera eman badio: Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (edo EAE-ren organo eskudunak) igorritako ziurtagiria, jardueraren amaierari buruzko adierazpenari lotuta.
 - Fakturazioa murriztu bazaio: jasotako eta igorritako fakturen erregistro-liburua; diru-sarreraren eta gastuen egunkaria; salmenten eta diru-sarreraren erregistro-liburua edo erosketen eta gastuen liburua. Jardueraren bolumena liburuetan jasotzera behartuta ez dauden langile autonomoek fakturazioan % 75eko murrizketa izan dutela egiaztatu beharko dute zuzenbidean onartutako edozein frogagiri aurkeztuta.

Dokumentazioa posta elektronikoz bidaliko zaio Erreferentziazko Komertzializatzaileari, eta hark jaso-izana egiaztatzeko posta elektronikoa bidaliko du ere.

Bonu soziala fakturazio-zikloaren lehen egunean jarriko da indarrean, eskaera jasotzen denean.

Erreferentziazko Komertzializatzaileak azkeneko fakturan ohartaraziko dio kontsumitzaileari 6 hilabeteko epemugara iristean KTBP (Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioa) ordaintzen hasiko dela eta merkatu libreko beste edozein komertzializatzailearekin kontratatu ahalko duela hornidura.

AUTONOMOEI ETA ENPRESEI ARGINDARRAREN HORNIDURA KONTRATUAK MALGUTZEA (42. art.)

Alarma-egoeran, argindar-horniduraren titularra autonomo edo enpresa bat denean, neurri hauek ezarriko dira:

- Hornidura-kontratuak edo haien luzapenak aldi baterako eten edo alda ditzakete, eta haien komertzializatzailearekin kontsumo berrietara egokitzeko beste aukera batzuk kontratatu, penalizaziorik gabe.
- Potentzia edo sarbideko tarifiari aldaketak egin daitezke, aurreko 12 hilabeteetan aldaketak izan badituzte ere.
- 1164/2001 Errege Dekretuaren 5.3.4. artikuluan jasotakoarekin adostasunean, kontsumitzaileak sarbideko tarifa bakar bateratua aplikatzeko baimena badu nahiz eta bi hargune izan tentsio berdinarekin, sarbideko potentzia edo tarifa aldatzeko eska dezake. Horretarako, ez da Politika, Energia eta Meatzteen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenik behar, eta Zuzendaritza Nagusiari banatzaileei egindako eskaeren berri ematearekin aski izango da.

Autonomoen kasuan, norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako erregimen berezian edo antzeko beste batean alta emanda daudela egiaztatu beharko dute.

Alarma-egoera bukatu eta hiru hilabete beranduago, kontsumitzaileak kontratua berrabiarazteko edo sarbideko tarifiak edo potentzia aldatzeko eska dezake. Berrabiarazte/aldaketa horiek 5 egun naturaleko epean egin behar dira gehienez, eta kontsumitzaileak ez du ezer ordaindu beharko, salbuespen hauekin:

- Potentzia handitzeko eskubideak ordaintzea, erabiltzaileak alarma-egoera hasi aurretik kontratatuta zeukan potentzia igo duelako.
- Utzitako instalazioak gainbegiratzearen ondoriozko gastuak.
- Kontrol- eta neurketa-ekipoak aldatu behar izatearen ondoriozko gastuak.

AUTONOMOEI ETA ENPRESEI GAS NATURALAREN HORNIDURA KONTRATUAK MALGUTZEA (43. art.)

Alarma-egoeran, gas naturalaren horniduraren titularra autonomo edo enpresa bat denean, neurri hauek ezarriko dira:

- Kontratututa duten eguneko ur-emia aldatzea.
- Urteko kontsumo-tarifa maila txikiagoan sartzea.
- Ur-horniduraren kontratua aldi baterako etetea, inolako kosturik gabe.

Alarma-egoera amaitu eta hiru hilabete beranduago, kontsumitzaileak kontratua berrabiarazteko edo tarifa-maila edo ur-emia aldatzeko eska dezake. Berrabiarazte/aldaketa



horiek 5 egun naturaleko epean egin behar dira gehienez, eta kontsumitzaileak ez du ezer ordaindu beharko. Salbuespena izango da instalazioa berriz martxan jarri behar denean, segurtasun-egoeran eta itxita egon ondoren.

AUTONOMOEI ETA ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEI ARGINDARRAREN, GAS NATURALAREN ETA PETROLIOTIK ERATORRITAKO PRODUKTUEN FAKTURAK ETETEA (44. art.)

Alarma-egoeran, argindarraren, gas naturalaren eta petroliotik eratorritako produktuen horniduren titularrak diren autonomo edo enpresa txiki eta ertainek epe horretako kontsumoak barne hartzen dituzten fakturen ordainketak eteteko eska dezakete.

Joan-etorriak ekiditeko, eskera beste bide batetik egin beharko da.

Alarma-egoera bukatutakoan, zordundutako zenbatekoak parte berdinetan erregularizatuko dira hurrengo 6 hilabeteetako fakturretan.

Fakturazioa eteten duten autonomoek eta enpresek ezingo dute argindarraren edo gas naturalaren komertzializatzailez aldatu, egoera erregularizatzen ez duten bitartean.

OHIKO GALDERAK

Zaurgarritasun-egoeran ez banago ere, ezin ditut etxeko uraren, argindarraren edo gasaren fakturak ordaindu. Zerbitzurik gabe utz al diezadakete?

Alarma-egoerak irauten duen bitartean, argindarraren, uraren eta gasaren hornitzaileek ezingo dute etxebizitzetako zerbitzua eten.

Enpresa txiki eta ertain bat hornidura-zerbitzurik gera al daiteke, fakturak ordaintzeko zailtasunak baditu?

Autonomoen eta enpresa txiki eta ertainen kasuan, luzamendua aplikatuko da horniduren ordainketarako, eta kontratuak kontsumo berrietara egokitu ahal izango dituzte, penalizaziorik gabe.

Nola zenbatuko da alarma-egoeraren iraupena, hornidurak ordaintzen ez ditudan epeetan?

Alarma-egoerak iraun bitarteko denbora ez da aintzat hartuko ordainketa egiteko eskatzen den eta ez ordaintzeagatik hornidura eteten den arteko epean.

Lanean osasun-krisiaren ondorioak jasan ditut. Jaso al dezaket bonu soziala?

Orain, gehiago dira bonu sozial elektrikoaren hartzaile izan daitezkeenak, eta, salbuespenez, haien enpresetan lan-erregulazio egoeran daudenak edo jarduera eten behar izan duten edo diru-sarreretan % 75etik gorako galerak izan dituzten autonomoak ere sartzen dira.

Aurreko atalean aipatutako kontsumitzaile zaurgarriaren baldintzak betetzeko, ezinbestekoa da hargunearen titularraren errenta, edo, familia-unitateen kasuan, urteko errenta bateratua, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretua garatu eta kontsumitzaile zaurgarriaren izaera arautzen duen urriaren 6ko ETU/943/2016 Aginduaren 4. artikuluan jasotakoaren arabera kalkulatuta, bonu sozialak eta etxeko energia elektronikoko kontsumitzaileak babesteko beste neurri batzuk jasotzea gehienez ere:

- Kideen artean hargunearen titularra edo adingabekoak ez dituen familia-unitatearen diru-sarrerak 2,5 IPREMen parekoak izatea (14 ordainsari).
- Adinez txikiko bat duten familia-unitatearen diru-sarrerak 3 IPREMen parekoak izatea (14 ordainsari).
- Bi adinez txikiko dituen familia-unitatearen diru-sarrerak 14 IPREMen parekoak izatea (14 ordainsari).

Posible al da bonu soziala jasotzeaz gain Gobernuak krisi-egoerarako aurreikusi dituen beste laguntza batzuk jasotzea?

Bai.

COVID-19 krisiaren ondorioz lanik gabe geratu edo diru-sarrera txikiagoak jasotzen ari naiz. Zerbitzurik gabe gera al naiteke uraren, argindarraren edo gasaren fakturak ordaintzen ez baditut?

Alarma-egoerak iraun bitartean, ezingo dira hornidura-zerbitzuak eten. Gobernuak ekonomiari eta lanari lotutako neurri-sorta bat onartu du, koronabirusak eragindako larrialdi-egoerari aurre egiteko. Neurri horietako batek, hain zuzen ere, herrialde osoko etxebizitzetan oinarrizko hornidurak (argindarra, ura eta gasa) mantenduko direla bermatzen du.

Uraren, argindarraren eta gasaren konpainiek barkatuko al didate zorra, alarma-egoeran fakturak ordaintzen ez baditut?

Herritarrei luzamenduak eskainiko zaizkie. Hau da, zorrak ordaintzeko epeak luzatuko dira. Beste era batera esanda, ura, argindarra eta gasa hornitzen dituzten konpainiek ordainketa-metodoak malgutuko dituzte.

Enpresa bakoitzak erabakiko du zer prozedura jarraitu; hala nola, ordainketa epeetan zatitzea interesik gabe, alarma-egoera bukatu arte atzeratzea...



Orain arte kontsumitzaile zaurgarrien artean ez banengoen ere, COVID-19 krisiaren ondorioz lanean zein ekonomikoki kaltea jasan badut, hornidurak eten gabe mantenduko al dizkirate?

Egoerak iraun bitartean, hornidurak mantendu egingo dira. Osasuneko larrialdi- eta alarma-egoera bukatutakoan ere, kontsumitzaile zaurgarriek bonu sozialak edukiko dituzte eskuragai. Egoera horretan aurkitzen diren kontsumitzaile berriek ere haien udaleko gizarte-zerbitzuen bidez bonu soziala eskatu ahal izango dute.

Ainhoa Orrantia
Kontsumo Saileko Arduraduna
TOLOSALDEKO KIUB

